

# **ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA**

Areson, 2015ko irailaren 24ean, arratsaldeko 19:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

**Organua :** Batzarra

**Deialdia:** lehenengoa

**Eguna:** 2015/07/30

**Ordua:** 18:00

**Lekua:** Udalaren Batzar Aretoa

## **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

Ur Alguero Chivite

M<sup>a</sup> Asunción Arratibel Onsalo

Mikel Baraibar Garmendia

Eden Alguero Chivite

Jon Gurrutxaga Etxeberria

Javi Belaunzarán Mariezcurrena

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

## **BERTARATU EZ DIRENAK**

### **IDAZKARIA**

Ione Miren Lazkoz Maiza

### **GAI ORDENA:**

- 1.- Aurreko aktaren onarpena.
- 2.- Eluseder II industriguneko P-2A lursaileko salmentaren esleipenaren onespena.

- 3.- Axusta parajeko egur lotearen salmentarako espedientearen onespena.
- 4.- Aresoko bake epailearen izendapena.
- 5.-Udal hautetsien ordainsarien onespena.
- 6.- Eskaera eta galderak.
- 7.- Denetarik

### **Esan-eginak eta erabakiak**

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 19:00 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako en quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

#### **1.-Aurreko batzarretako akta.**

Aurreko batzarreko akta alkatearengatik irakurria da eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

- 1.1.- 2015ko uztailaren 30ko ohiko batzarreko akta onartzea.

#### **2.- Eluseder II industriguneko P-2A lursaileko salmentaren esleipenaren onespena.**

-

2015ko uztailaren 30ko Udal Batzarrean Aresoko Udalak Eluseder II industriguneko P-2A lursaileko salmenta espedientea onartu zuen.

Bertan jasotzen denaren arabera Eluseder IIko 1 Poligonoko 574 Lursailetik, besterentzeko lehiaketa publiko bidez, 1.664,50 metro karratuko azalera salmentara atera da.

Metro karratu bakoitzeko 149,28 euro ordainduko dira gutxienik eta eskaintza Aresoko udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar zen 2015ko irailaren 11ko eguerdiko 13.00ak baino lehen.

Behin salmentan jarrita, epe barruan eskaintza bakarra jaso izan da Aresoko Udal Hirigintza Elkarteko kontratazio mahaiak 2015ko irailaren 28ko enkante aktan jasotzen duen bezala.

Baldintza Pleguan ezarritako ukan beharrak betetzen direla eta kontratazio mahaiak lur salmentaren esleipena aurkeztu den hautagai bakarraren alde egitea proposatzen du, hau da, EUSKOPLAST POLYMER EXTRUSIÓN S.L enpresaren alde.

Kontratazio mahairen proposamena aintzat hartuta, Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteak, 2015ko irailaren 21ean egindako administrazio kontseiluko aktan jasotzen den arabera EUSKOPLAST POLYMER EXTRUSIÓN S.L enpresari salgai jarritako lur eremua esleitzea erabakitzen du. Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteko lehendakaria ahal ordetuz salerosketa kontratua sinatu eta operazio hau isteko behar diren tramite guztiak egiteko.

2015ko irailaren 25ean Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteko lehendakariak P2-A lur sailaren segregazio eskaera egin du eta egun bereko data duen Administrazio kontseiluko aktan oinarrituta Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteak segregatzeko baimen akordioa hartzen du.

Bide batez akordio hauen berri Aresoko Udal Batzarrari emanen zaizkiola ere adosten da akordio hauek berretsiak izan daitezen.

Azalpenaren ondoren, gehiengo absolutuz, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- Eluseder II industriguneko P-2A lursaila EUSKOPLAST POLYMER EXTRUSIÓN S.L enpresari esleitzea.

2.2.- Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteak 2015ko irailaren 21ko administrazio kontseiluak hartutako salmenta eta esleipen erabakia berrestea.

2.3.- 2015ko irailaren 25ko Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteko lehendakariaren segregazio eskaera eta administrazio kontseiluko segregazio akordioa aktan jasotako eran onartzea eta berrestea.

### **3.- Axusta parajeko egur lotearen salmentarako espedientearen onespena.**

Ur Alguero alkateak oinarriak bere osotasunean irakurtzen ditu:

*Ehiza-jarduera eta Areso-Arribe-Atallu NA 10.562 barruti publikoan enkantean aterako diren uso-paraden banaketa (2015-2016 denboraldia)*

1.- Areso-Arribe-Atallu NA 10.562 barruti publikoan dauden uso-paradak, Aresoko udalerrriari dagokion zatian, bi ingurutan banatuta daude: lehendabiziko 27 paradak Urteaga parajea daude, eta 2015-2016 denboraldirako enkante bidez esleituko dira, aurrerago azalduko diren lizitazio-ereduen arabera. Peña, Perratokieta, Goiegi, Uniate, Museo eta Gañarben kokatuta dauden ehiza-paradak, 1 zenbaitik 36 zenbakirainokoak, Aresoko ehiztari guztiak biltzen dituen USOA Ehiztarien Elkarteari esleituko zaizkio zuzenean.

2.- USOA Ehiztarien Elkartek bere gain hartzen du parada horien banaketa. Horretaz gain, parada horiek antolatzeaz eta behar bezala ordenatzeaz arduratuko da, eta baita bertan eta inguruan eginen den ehizaz ere.

3.- USOA Ehiztarien Elkartek, era berean, egokitzeko lan guztiak egiteko konpromisoa hartzen du; bere ingurukoak, eta baita enkantean aterako diren altuerako uso paradena ere, hau da, 21-22-23-24 zenbakia duten paradena. Gainontzekoak, lurrekoak diren paradetan, esleidunak konpondu beharko ditu edo nahi izan ezker, 50€ ordainduta eta hala eskatuta, USOA Ehiztari Elkartek konponduko du. Horretaz gain, oholtxoak berriz jartzeko ardura izanen du.

4.- Udalak jasoko duen kopurua honakoa izanen da: enkanteko erremateen batura, gehi USOA Ehiztarien Elkartek ordaintzen duen kanona.

5.- Urteagako paradak urtebetez alokatuko dira, esleipena egiten den egunetik kontatzen hasita.

6.- Barrutiaren Plan Zinegetikoak espresuki ezarritako uso-paradez gainera, ezin izanen da beste paradarik ezarri.

7.- Edozein kontzeptu dela-eta usoa ehitzatzeko baimena dutenek, soil-soilik paradetan egin ahal izanen dute ehiza.

8.- Behin-behineko esleipenean errematatzaileak Udalari FIDANTZA ordainduko dio. Fidantza, hain zuzen ere, behin-behineko esleipenaren zenbatekoaren EHUNEKO HAMARRA izanen da.

9.- Esleipendun guztiak, esleipenaren prezioaz gainera, esleipen horrek sortuko dituen zerga eta gastu guztiak ordainduko dituzte.

10.- Boz gorako enkantea eginen da, parada independenteen arabera, eta gehikada-tantoak HAMAR eurokoak izanen dira.

11.- Esleipendunen batek Baldintza Plegu honetan ezarritako betebeharrak beteko ez balitu, esleipena galduko luke.

12.- Paradak 1etik 27raino zenbaituta daude eta URTEAGA parajea kokatuta daude. Paraden enkanteagatiko lizitazio-prezioa ondorengoa da:

12.1.-2.,3. eta 4., paraden lizitazio-prezioa SEIEHUN (600) euroko da.

12.2.-1.,5., 21.,22., eta 23. paraden lizitazio-prezioa HIRUREHUN (300) eurokoa da.

12.3.-Gainontzeko paraden lizitazio-prezioa EHUN ETA BERROGEHITA HAMAR (150) eurokoa da.

13.- Enkantea Aresoko Udalaren Udal Bulegoetan eginen da, 2015ko irailaren 19an, larunbata, arratsaldeko 7etan.

14.- Esleitu gabe gelditutako parada guztietarako, eta legezko epearen barruan dagokion hobekuntza lortu dutenetarako, bigarren enkantea egingen da. Bigarren enkante hori behin betikoa izanen da, eta 2015ko irailaren **26an** egingen da, **larunbata, arratsaldeko 7etan**.

15.- Behin betiko esleipena egin ondoren, Udalak dagokien esleipen-txartela emanen die esleipendunei. Horretarako, aldezturik honakoak ordaindu beharko dituzte:

\* Behin betiko errematearen zenbatekoa

\* Baldintza Plegu honen 9. atalak aipatzen dituen gastuak: % 21a, hain zuzen ere BEZari dagokiona eta hurreko paradetarako, USOA Ehiztari Elkarteak konpondua izan dadila nahi duenak 50 euroko ordainketa egin beharko du.

\* Postu bakoitzeko 50€ko fidantza jarri beharko da postua garbia mantendu dadin; 2015ko abenduaren 31rako postua garbia egon behar du, hala bada, fidantza itzulia izanen da eta horrela ez izatekotan, udala fidantzarekin geratuko da. Beti ere fidantza ez da itzulia izanen urtarrila amaiera arte.

16.- Esleipenduna izan gabe eta titularraren berariazko baimenik gabe enkantean banatutako paradaren batean ehizan ari den oro salatua eta zigortua izanen da, ehizaren inguruan indarrean dagoen legediaren arabera.

17.- Enkantean banatutako paraden esleipendunek, denboraldia bukatzen denerako, paradak eta paraden ingurua ahalik eta garbien utzi beharko dituzte: kartutxoak, hondakinak, zaborra...

18.- Baldintza Plegu honetan aurreikusita ez dagoen guztia, honakoen arabera arautuko da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea; Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legea; 17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzkoa; eta gai honen inguruan indarrean dauden bestelako xedapenak.

Behin aztertuak izanda, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.- 2015-2016 denboraldiko uso paraden enkanterako oinarriak onestea.

3.2.- Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Hitzaldizkarian, Berria eta Diario Vasco egunkarietan uso paraden enkantea iragartzea.

3.3.- Enkantean azpimarratzea esleitu ez zaizun postu batean ehizarik ezin dela egin.

#### **4.- Aresoko basoaren sektorizazio planaren onespena.**

Aresoko alkatea den Ur Alguero Chivitek adierazten du Aresoko baso plana 2012. urtean iraungia gelditu zela. Ordu ezkerreko landa garapenerako departamentuarekin

harremanetan izan direla eta horren ondorioz Aresoko komunaleko baso plana berritzeari ekin diotela.

Horretarako departamentuko teknikari, baso zain eta herriko abeltzainekin bilera ezberdinak egin izan dira basoaren egoera, nahiak eta beharrak aztertzeko.

Dagokion azterketa eta ikerketa egin ostean Ordenazio proiektuari lotutako baso tipologia eta Plan berezia eguneratu dute,

Honen baitan Aresoko udalak basoko sektorizazioa nolakoa izanen den zehaztu du, abeltzainekin aldez aurretik adostutako sektorizazioa izan da hau eta honen baitan behin betiko itxiturak nondik nora egingen diren finkatu dira, zuhaitz emankor eta abeltzantzarako eremuak banatuz. Honetaz gain, mozketa eta hobekuntza plana zehaztu da ere.

Behin gaia aztertuta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

4.1.- Aresoko baso plana onartzea: Ordenazio proiektuari lotutako baso tipologia eta Plan berezia onartzea.

4.2.- Honen baitan Aresoko udalak honako konpromisoa hartzen du:

a) Aresoko basoko sektorizazioa onartzea eta berau bete haraztea.

b) Finkatutako eremuak itxituren bidez banatzea, zuhaitz emankor eta abeltzaintzarako guneak berezitu eta mozketa eta hobekuntza plana egikaritu.

4.3.- Landa Garapen departamentura erabaki honen berri ematea.

## **5.-Eskaera eta galderak.**

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19:45 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.



